300. zk.
Bigarren aroa
Maiatzak 1
2017

Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

Erreportajea
Apirileko Azoka.
3. orrialdean

Kirolak
Scooter-Euskal Liga.
8. orrialdean

Opila Eguna!

4 Berria Musiklrun.
6-7 Argazkiak Opila Eguna.
9 Kirolak Maila galdu du Mariñok.
10 Kolaborazioa Gorka Martinez - Kopako Harria eta Agiña.
11 Haurren Leihoa
12 Gazteen Lanak
13 Gaztea Gazteen Mugikortasunerako Nazioarteko Zerbitzua.
14 Gazte infor
15 Agenda

bertako igogailuak | ascensores
www.bertako.eus

- ✓ Irunen Igogailu Mantenurako Enpresarik aproposena
- ✓ 24 orduko benetako zerbitzua
- ✓ Piezak barne hilean 100 € - tatik
- ✓ Telefono linea barne
- ✓ Euskerazko zerbitzua
- ✓ Eskatu zure aurrekontua 943903450

Argazki lehiaketa

Ainara Lertxundi
Ibarlako erreka.

Argazki lehiaketan edonor izan daiteke parte hartzaile. Ez dago adinari edo bizitokiari dagokion mugarik.

Gaia bakarra izango da: Irun. Irungo jendea, lekuak, natura, etab.

Saria: urtearen bukaeran, argitaratu ditugun argazkien egileen artean sari bat zozkatuko dugu.

Bete beharrekoak: argazkiak kalitate ona behar du izan. Argazkiarekin batera, deskribapen txiki bat bidali beharko du egileak.

Argazkiak bidaltzeko: jarozena@irunero.com

Irun atzo Irun gaur

IUA: 1543

Ramón Iribarren Kalea

1975eko abenduaren 2ko Osoko Bilkuran Gobernu Batzordearen propsamenez izendatu zuten Ramón Iribarren Kalea. Dunboa auzoan kokatua dago.

Ramón Iribarren Cabanilles Irunen jaio zen 1900eko apirilaren 15ean. Bide, Kanal eta Portuen Eskolan sartu zen, eta bere promozioko onena izan zen ikasketetan.

Bere lan guztiak itsasoarekin loturik egon ziren, asko maite baitzun gai hori. Itsasoko eta kostako hirietako gizonen segurtasuna benetakoa izan zedin ahalegintzen zen.

Bere lan batzuk: Hondarribia, Donostia, Orio, Getaria, Zumaia, Deba eta Mutrikuko portu gipuzkoarren proiektua eta erainkuntza. Halaber, Hendaia, Hondarribia, Orio, Zumaia eta Debako hondartza berrien proiektua eta sorkuntza egin zuen.

1958an Irungo Udalak Hiriko “Seme Kuttun” izendatu zuen Hondarribiko aireportua eraikitzen lagundu zuelako.

Iturria: José Monje.

Irungo kaleen izenak.

Erredakzioa eta maketazioa:
Joseba Arozena eta Unai Oiartzun.
Euskara zuzentzailea:
Unai Oiartzun
Publizitatea:
Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas
amaiaterrazasruiz@gmail.com
Ion Otxoa
ion@943sansebastian.com
Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
ISSN: 1134-0606
Lege gordailua:
SS-230-94.
Tel: 693 828 099

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org
Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLITICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia
Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

Andaluziako kultura hirian hedatuz

-Apirileko Azoka antolatu du Embrujo Andaluzek hemeretzigarrenez
-Paco Merino elkarteko presidente ohiari egindako omenaldi gisa balio izan du

Sevillako plaza baten itxura hartu du Zabaltzak apirileko azken asteburuan. Apirileko Azoka antolatu du Embrujo Andaluz Kultur Elkarteak, hemeretzigarren aldiz. Ustekabeko albiste txar batek baldintzatu du, alabaina, aurtengo edizioa. Paco Merino presidente ohia bat-batean zendu da. "Inaugurazioaren egunean etorkizuneko proiektuak kontatzen egon zitzaidan", adierazi du José Antonio Santano alkateak, sare sozialetan: "Bere hutsunea baretuko dute sustatu zituen ekimenek. Besarkada handi bat familiari. Goian bego". Iruneroko kazetariaren galderei ere erantzun zien Paco Merinok, azokaren aurretik. Orduan egindako adierazpenak dira ondorengoak.

"Jendeak ikaragarri gozatzen du urtero", baieztatu du Paco Merino elkarteko presidente izandako kide beteranoak. Gogotik lan egitea egokitzen zaie elkarteko kideei, eta oholtzaren gainean dantzatzea, horietako batzuei. Embrujo Andaluzeko taldeez gainera, gonbidatuak ere izan dira Zabaltza plazan. Batetik, Irungo dantza akademiek parte hartu dute, sevillanak eta flamenkoa lantzen dituztenek, baina bestelako estiloetan aritzen diren beste batzuek ere bai.

Bestetik, elkarte andaluziarrak dituzten Gipuzkoako beste herrietako taldeek parte hartu dute, Errenteriakoek, Andoaingoek eta Zumarragakoek, besteak beste. Gainera, urrutiagotik etorritako artistak izan dira Irunen. Angélica Leyva madrildarra da, baina arbaso andaluziarrak ditu, eta flamenkoa interpretatzeko era berezia du. La Voz telebista saioaren lehen edizioan parte hartu zuen. Son de Ases Araban sortutako taldea da, baina taldekideek jatorri andaluziarra dute. Lau gizonezko dira, sevillanak eta rumbak eskaintzen dituztenak. "Kanpoko taldeak etortzen direnean, harrituta gelditzen dira hemen topatzen duten giroarekin", adierazi du Merinok. Irundar askorentzat ere ezustekoa izan da Apirileko Azoka.

Dantza librerako aukera egon da, eta jende asko animatu dela azpimarratu du Isabel Aragón Embrujo Andaluzeko presidenteak: "Dantzatzen jakin gabe ere animatu da jendea. Azkenean, oso musika erakargarria da". Alde gastronomikoak ere erakarri du jendea. Ardoz eta freskagarriz egindako *rebujito* edariak izan du arrakasta gehien. Urdaiazpiko ona ekarri dute, gainera. "Andaluziako produktu gehiago ezin izan ditugu eskaini. Salmorejoa egiteak, adibidez, lan handia ematen du. Jende asko mugitzen dugu, baina lanerako, ez gara hainbeste", argudiatu du Isabel Aragónek.

Ia bi hamarkadako ibilbidea

Duela hemeretzi urte sortu zen Embrujo Andaluz elkartea, jatorri andaluziarra duen irundarren talde baten partetik. Gogoan du Merinok: "Gure elkarrizketetan maiz ateratzen zen kultur elkarte bat sortzeko asmoa. Ez genuen dirurik, baina bagenekien jende asko zoriontsu egingo genuela". Lehen urtean, Apirileko Azoka antolatu zuten, Cipriano Larrañaga kalean. Bigarren urterako, Zabaltza plazara lekualdatu zuten. Bertan eraberritze lanak egin zituzten garaian, Pio XII plazan ibili ziren, baina gaur egun Zabaltzako kokalekua egonkortuta dago.

Gipuzkoan aitzindaria izan zen Irungo Apirileko Azoka. Gerora egin izan dute, beste zenbait herritan. Irunen, hasieran trabak topatu zituztela aitortu du Paco Merinok: "Mesfidantza sumatu genuen, bizilagunen eta udalaren partetik. Urtetako ahaleginari esker, denen babesa lortu dugu". 2008an, oihartzun handia eduki zuen ekimena aurrera eraman zuten. 492 lagun jarri zituzten Luis Marianon dantzan, sevillana jantzita. Inoiz beste inon baino gehiago. Guiness errekorra lortu zuten horrela. "Hurrengo urtean Sevilla hiriak gainditu zuen, baina ordura arte ez zitzaien bururatu", aipatu du Isabel Aragonek: "Oso bitxia izan zen, Gipuzkoako hiri batean lortzea errekorra. Estatuko komunikabideen deiak jaso genituen".

Urte osoko jarduera du elkarteak

Apirileko azoka antolatzeaz gainera, elkarte aktiboa da Embrujo Andaluz. Inguruko elkarteen beste azoketan eta ekimenetan parte hartzen du, eta adinekoen egoitzetara bisitak egiten ditu. Lapitzeko haur eskola zaharrean dute egoitza, Freire Jenerala kalean. Bertan, sevillana eta flamenko dantzen ikastaroak egiten dituzte. Gainera, elkarte gastronomikoa ere badute, andaluziako apaingarriez josia. Ia berrogei familia aritzen dira Embrujo Andaluz elkartean. Jakina, kide guztiek ez dituzte jatorri andaluziarrak. Extremadurakoak eta beste lekuetakoak ere badira. Paco Merinok egindako bideari jarraipena emango diote hemendik aurrera.

Kike Romero hondarribiarra da, baina zeharo murgilduta dago Embrujo Andaluzen: "Nire emaztea sevillanak dantzatzen hasi zen. Ni afarietara etortzen hasi nintzen, eta harrapatu egin ninduten". Jatorria, beraz, ez da ezinbesteko baldintza, Embrujo Andaluzen parte hartzeko. Paco Merinok gehiago baloratzen du lan egiteko prestutasuna: "Konturatzen gara jende gazteak ez duela gehiegi inplikatu nahi izaten. Lan asko egiten ikusten gaituzte, eta hori ez da erakargarria". Alabaina, batzuek goza dezaten, beste batzuek lan egin behar izaten dute.

Olaizola
Immobiliaria agentzia
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Martxan da MusikIrun Maketa Lehiaketa

Maiatzaren 8an amaituko da lanak aurkezteko epea

"Gero eta zailagoa izaten da emakumez osatutako taldeak, edo emakumezko taldekideak aurkitzea"
Gemma Gonzalez, Lady Red

"Iaz 60 parte hartzaile izan ziren, inoiz baino gehiago"
Iñaki Abuin, Phantom Studios

Zazpigarren edizioa du aurten MusikIrun maketa lehiaketak. Lehen lanak jaso ditu jada Irungo Udalak, eta maiatzaren 8ra arte aurkeztu daitezke. 30 urtetik beherako batez besteko adina duten taldeek edo bakarlariek parte hartu dezakete. Genero edo estilo aldetik ez dago inolako mugarik. Irun.org/gazte web gunean edo CBA kultur gunean dagoen Gazte Informazio Bulegoan egin daiteke izen-ematea. Bi eta bost abesti artean aurkeztu beharko dituzte parte hartzaileek, originalak musikari eta hitzei dagokienez.

Sei talde aukeratuko ditu epaimahaiak, eta finalerdietan joko dute. Binaka eskainiko dituzte emanaldiak, maiatzaren 20an eta 27an, eta ekainaren 3an. Estebenea jatetxean izango dira kontzertu guztiak. Aurten, berritasun gisa, finalerdiak bideoz grabatuko dituzte. Finalerdi bakoitzetik talde bat aukeratuko dute, hiru guztira, finalean parte hartzeko. Sanmartzialen atarian izango da finala, ekainaren 17an, Urdanibia plazako eszenatokian. Egun horretan, talde ezagun batek joko du finalisten ondoren. Oraindik ez dute haren izenik eman. Hala ere, nazioartean ezaguna dela baieztatu du Iñaki Abuin Phantom Studios-eko arduradunak: "Uste dugu oso ondo funtzionatuko duela. Estilo asko jorratzen ditu, oso irekia da".

Epaimahaia eta sariak

Epaimahaiko kidea izango da Iñaki Abuin. Gainerakoak: Lady Red promotorako Gemma Gonzalez, Olga Grande Los 40 irratiko esataria, Xabier Mendiluze gitarra jotzailea (Alex Ubago, El Canto del Loco, El Sueño de Morfeo), eta Irungo Udaleko Gazteria arloko ordezkari bat. "Bakoitzak bere ikuspuntua izango du", adierazi du Gemma Gonzalezek. Irabazleak bost kantuko miniLP bat grabatu ahal izango du. Bigarrenak, bost abestiko maketa, eta hirugarrenak, hiru kantuko single-a. Interneten boto gehien jasotzen duen taldeak, musika materiala erosteko 400 euro jasoko ditu.

Gero eta parte hartzaile gehiago izan ditu MusikIrun Maketa Lehiaketak azken urteotan. "Iaz 60 izan ziren, inoiz baino gehiago", zehaztu du Iñaki Abuinek. Euskal Herriko leku ezberdinetatik, eta estatuko zenbait tokitatik etorri izan dira taldeak. Aurten, hori dela eta, Irunen jotzera etor daitezen, "dieta ekonomikoak" emango dituztela baieztatu du Abuinek. Taldearen jatorriaren arabera zehaztuko dituzte kopuruak. Bertako eta kanpoko taldeei gonbidapena luzatu diete. Lady Red-eko Gemma Gonzalezek, emakumeei dei berezia luzatu die: "Urtero-urtero, gero eta zailagoa izaten da emakumez osatutako taldeak, edo emakumezko taldekideak aurkitzea". Pausoa emateko aukera aproposa dute MusikIrun maketa lehiaketan.

CENTRO KINEESIS
- METODOA: K-STRETCH ®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT
www.kineesis.net www.k-stretch.com
Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640

Top
9,99 €
IREKIERA MAIATZAREN 4AN
TXINGUDI MERKATARITZA PARKEAN
H&M

Eguraldiak ez du Opila Eguna zapuztu

Apirilaren 25erako iragarpenak txarrak ziren. Hodeitsua izan da eguna, euri zaparradak bota ditu, baina azkenean, hainbestean eutsi dio eguraldiak San Marko egunean, goizean batez ere. Hori dela eta, lagunartean eta familian gozatu ahal izan dute haurrek eta gaztetxoek, eta haien senideek, amabitxiek oparitutako opilekin.

Goizean, opilen bedeinkapen ekitaldiak izan dira hiriko zenbait elizatan. Junkaleko plazatxoan, ordu erdi lehenago iritsi da Saioa, amarekin eta ahizparekin leku egokia hartzeko. “Urtero-urtero etortzen gara”, azaldu du, irribarrez: “Gero etxean jango dugu opila”.

San Jose Langilea parrokian, Larreaundin, zapia irekitzeko irrikitan zegoen Aitor, opila lehenbailehen dastatzeko. “Asko gustatzen zait”, baieztatu du. Arratsaldean auzoko lagunekin gelditukо dela adierazi du: “Opilak elkarbanatuko ditugu”. Eguerditik aurrera, San Martzial mendian eta Ibarla inguruan bildu dira hainbat irundar. Ohi baino gutxiago izan dira, okerrera egin baitu eguraldiak arratsaldean.

Prebentzio plana burutu du Irungo Udalak

Udaltzaingoak alkohola saltzen duten taberna eta dendetan zaintza lanak egin ditu apirilaren 25ean, adin txikiko inork alkohola eros ez zezan. Bestalde, udalak San Martzialera zein Guadealupera joateko doako autobus zerbitzuak antolatu ditu. Ordu erdiro abiatu dira, goizeko 10:00etatik 14:00ak arte, eta arratsaldez, 16:00etatik 20:30etara.

ANTXETA
IRRATIA
90.5 / 89.7 FM

BAKAILAOA DASTA EZAZU

RJ BACALAO
bacalaos SANTYMAR
la barajilla bacalaos
Egiullor Bacalaos

Irun, scooter-aren mapan

Euskal Ligako lehen jardunaldia jokatu zuten apirilaren 29an, El Establo Piratak antolatuta

> Azken urteotan indarra hartu duen kirola da freestyle scooter-a. Irungo skate park-a adibide egokia da. Truko ikusgarriak egiten dituzten neska-mutilez betetzen da astebururo. Pista estalian aritzeko aukera ere badago, Letxunborroko El Establo Piratan. Bertako arduradunak buru-belarri ari dira lanean, Irunen maila handiko lehiaketak egin ahal izan daitezen.

Apirilaren 29ko goizean, Scooter-eko Euskal Ligako lehen jardunaldia izan zen Irunen. Bidasoaren bi aldeetako parte hartzaile eta ikusle ugari bildu ziren, Santiago zubiaren ondoko skate parkean.

Estatu mailan aitzindaria da liga, eta lehen edizioa du aurten. Sei hitzordu izango ditu (Irun, Amara, Leioa, Bermeo, Gasteiz, Santa Luzia, Zabalgana). El Establo Pirata elkarteak antolatu du liga, eta Juan Luis Cáceres presidenteak harro azaldu du haren jatorria: Denbora daramagu Irunen eta inguruan scooter-ean aritzen diren gazteekin lanean. Gaur egun esan dezakegu estatu mailako scooter-aren mapan dagoela Irun. Erreferentzia da".

Goizeko 10:00etan hasi zen lehiaketa, eta 53 parte hartzaile izan ziren guztira, adin tarte eta kategoria ezberdinetan banatuta: 14 urtetik beherakoak eta gorakoak, adinari dagokionez, eta amateurrak eta aurreratuak, kategoriari erreparatuta. Lau orduz ibili ziren ahalik eta truko onenak egiten, ikusleak harrituta uzten ahalegintzeko. Minutu onena, truko onena, flow onena eta jauzi onena baloratu zituzten epaileek, besteak beste.

Puntuazio onena lortu dutenak rankingeko lehen postuan kokatu dira. 10 patinatzaileko zerrenda hori hurrengo hitzorduetan aldatuz joango da.

Skate-ari edo patinei aurre hartu dien kirola da scooter-a. Asko dira Irunen eta inguruan dituen zaleak, eta patinatzaile gazteenen adina kontuan hartuta, pentsatzekoa da etorkizuna duela.

Irunen beti egon izan da patinatzearekin lotutako tradizio handia: Sancheskiren patinen garaia, Sarjiako U hura, skate parkaren eraikuntza sustatu zuten gazteak, Sport Jam azoka, eta orain, El Establo Pirata elkartea. Tradizioak aurrera egingo duela dirudi.

Euskal Liga ez da hirian antolatuko den jarduera bakarra. "Espainiako Txapelketa hemen izango da. Lana eta denbora eskatzen du Irun maila horretan mantentzeak. Beste hiri batzuetan maila handiagoko patinatzaileak daude, baina hemen egiten dugun lanak oihartzun handia du estatuan", aurreratu du Juan Luis Cáceresek.

Bukatzeko, jendea animatu nahi izan du, klubera hurbil dadin: "Aste osoan zehar etor daitezke gazteak, pista estalian patinatzera. Astelehenetan baino ez dugu isten. Entrenamendu bereziak ere eskaintzen ditugu, monitore profesionalekin. Gazteak kirola egitera bultzatzeko modua da, kalean egon ez daitezen".

Maila galdu du Mariñok

Emakumeen talde nagusia Euskal Ligan ariko da hurrengo denboraldian

Barakaldoko Serralta futbol zelaian irabaztera behartua zegoen Mariño. Lehia zuzena zen, jaitsiera ekiditeko lehian zebiltzan bi taldeen artekoa. Pauldarrakek etekina atera zion etxean jokatzearen abantailari, eta Mariño mendean hartuta, mailari eutsi zion (3-0). Hil edo biziko neurketa zen apirilaren 30ekoa, eta hitzordurako giro aproposa prestatu zuen Pauldarrak-ek: "Jende aunitz zegoen animatzen, bonbo eta guzti. Beste modu batean iritsi izan bagina, jokatzeko partida polita izan zitekeen", azaldu du Jose Luis Altzugarai *Zikiro* Mariñoko entrenatzaile lesakarrak. Irungo emakumeentzat, ordea, kontrako giro bilakatu zen.

Presio handiko norgehiagoka zen, eta aurretik, aldagelan "isiltasuna" nagusi zela aitortu du Zikirok: "Horrelako egoeretan, ezin diezu jokalariei gauza handirik esan. Badakite zer dagoen jokoan. Animatzea besterik ez da geratzen". Jokalari gazte asko ditu Mariñok, halako egoerei aurre egiteko ohiturarik ez dutenak. "Zaila da, horrelakoetan, urduritasunari eustea", argudiatu du Zikiro beteranoak. Berdegunera irtenda, Pauldarrak eraginkor batekin egin zuten topo. 15.minutuan lehen gola sartu zuen arerioak, eta minutu gutxiren buruan, bigarrena. "Ez dira gu baino gehiago, denboraldi osoan zehar lehia berdinean ibili baikara. Baina den-dena atera zitzaien", azaldu du Zikirok.

> "Zaila da, horrelakoetan, urduritasunari eustea"
> Jose Luis Altzugarai Zikiro

Atsedenaldiaren atarian, hirugarren gola jaso zuen Mariñok. Kolpe erabakigarria izan zen. Lur jota geratu ziren urdinak, eta bigarren zatian ezin izan zuten desabantaila murriztu. "Aldaketak egin genituen, erasora jotzen ahalegindu ginen, baina oso-oso zaila zen markagailuari buelta ematea", adierazi du Zikirok. Pauldarrak-ek salbazioa ospatu ahal izan zuen. Mariñoko emakumeek, berriz, burumakur egin zuten bueltako bidaia. Sasoi osoan zehar jaitsiera postuetan sartu eta irten ibili ondoren, maila galdu dute azkenean.

Hamalau partida galdu ditu aurten Mariñok, bost berdindu, eta zazpi irabazi. Azaroan eta abenduan izan zuen bolada txarrena, sei jardunalditan puntu bakarra bildu baitzuen. Zama astunegia izan da hori, eta urtarriletik aurrera lau garaipen lortu baditu ere, ezin izan du galdutako diferentzia berreskuratu. Bi puntu falta izan zaizkio azkenean, talde urdinari, Bigarren Mailari eusteko. 26rekin amaitu du liga, eta 28rekin, berriz, Burgosko Nª Señora del Belenek, jaitsiera ekidin duen lehen taldeak.

Egoera zaila bizi du emakumeen futbolak Irunen

Euskal Ligan ariko da Mariñoko emakumeen talde nagusia, hurrengo denboraldian. Momentuz, Jose Luis Altzugarai Zikirok ez du argitu aulkian jarraituko duen, ezta taldeak aurtengoaren antza izango duen ere: "Bilera batzuk egin beharko ditugu, hurrengo denboraldirako egoera zein izan daitekeen aztertzeko. Argi dago jokalari batzuek Mariño utziko dutela, maila handiagoko taldeetara joateko, ikasketak kanpoan egingo dituztelako etab.".

> "Beste kirol batzuek indar handia hartu dute, eta neska asko erakartzen dituzte"
> Jose Luis Altzugarai Zikiro

Taldea osatzeko, jokalariak bilatu beharko dituztela onartu du Zikirok, eta azpimarratu du, egoera ez dela batere aproposa: "Duela zenbait urte, Dunboak, Artiak eta Real Unionek emakumezkoen taldeak zituzten. Gaur egun, Mariño da bakarra Irunen". Hirian futbolean jokatzen duten emakumeen kopuruak behera egin duela baieztatu du Zikirok. Iaz ikastetxez-ikastetxe aritu zen, neskak animatu nahian, eta testuinguruaren analisi ezkor samarra egin zuen. "Beste kirol batzuek indar handia hartu dute, eta neska asko erakartzen dituzte: dantzaz gainera, atletismoak, mahai tenisak, eskubaloiak edo errugbiak adibidez", azaldu du Zikirok.

Beste zailtasun bati aurre egin behar izaten dio, gainera, Mariñok. Gaur egun, Oiartzunek eta Realak Emakumeen Lehen Mailan dituzte talde nagusiak. "Maila ona duten emakumeek, talde horietara egiten dute jauzi", aipatu du Zikirok: "Aurten bi joan zaizkigu Oiartzunera, eta aurrekoan beste bi Realera". Emakumeen futbolak une gozoa bizi du Euskal Herrian, taldeen kirol mailari eta pixkanaka, komunikabideetan duten oihartzunari dagokionez. Irunen, aitzitik, beheraldian dago une honetan.

Kopako Harria (596m) eta Agiña (618m)

GORKA MARTINEZ

unpaisenmimochila.blogspot.com

Endara/San Anton urtegian hasten da ibilbidea. Lesakako lurretan dago (Nafarroa), eta 1988az geroztik, Irungo eta Hondarribiko hiritarrak hornitzen ditu. Oiartzun herritik, GI-3420 errepidea hartu beharra dago, Lesakara bidean. San Anton ermitaren ondoan utzi ahal izango dugu ibilgailua.

Ermitaren parean, GR-11ko marka zuri-gorriak topatuko ditugu. Horiek jarraituta, Tellegiko leporaino iritsiko gara. Bidexka estua hartuko dugu ondoren, basoa zeharkatuz (15min). Kopako Harrira iritsiko gara laster. Granitozko tontor ikusgarria da, Aiako Harrien aldamenean dagoena, Endarako urtegiak haiengandik banatuta.

Tellegiko lepora bueltatuko gara, eta bertan, igarobide kanadiarra zeharkatzen duen zementuzko pista hartuko dugu. Bidegurutze batera iritsiko gara, eta bertan, Aginara daraman bidea topatuko dugu (ordu bete). Borda bat eta iturri bat utziko ditugu atzean, tontorrera iritsi aurretik. Aita Donostiaren omenez egindako eskulturara daraman zementuzko bidea hartuko dugu (1:30). Jorge Oteiza eskultoreak eta Luis Vallet Montano arkitektoak parte hartu zuten obra horretan.

Aginako tontorrean ez dago buzoirik, antena bakar bat baizik. Onena, 360ºko bista panoramikoa da. Leku estrategikoa da, eta Bidasoa ibaiaren ibarreko tontor guztiak ikus daitezke (1:50). Jaitsieran, Tellegiko lepora bueltatuko gara, eta bertan GR-11 ibilbidea hartuko dugu, hasierako puntura bueltatzeko.

Distantzia: 8,9 km.
Denbora: bi ordu eta erdi (geldialdirik gabe).
Gailurrak: Kopako Harria (596m) - Agiña (618m).
Desnibela: 611m.
Zailtasuna: Erraza. Hasierako malda gogorra bada ere, gainerakoa ibilaldi erosoa da.

El Pilar HH

bideosare
-> Ikus-entzunezko proiektuak
-> Bideo grabaketa eta edizioa
-> Multimedia
Bideoak zure erara !
bideosare.com

Txingudi Ikastola 6. maila

Denok dakigunez, Abenduaren 3an euskararen eguna ospatzen da, baina 2016an larunbata izan denez, ikastolan abenduaren 2an ospatu dugu. Urtero bezala, arratsaldeko 2 saioetarako bertsolaritza saioa antolatu dugu.

6. mailako ikasleok gai jartzaile lana egiten dugu. Bi bertsolari ikastolara gonbidatu (Aitor Errazkin eta Manu Gologana aurten) eta gela bakoitzak bertsolarientzako lanak prestatzen ditu. Aurten adibidez, 6.A gelakoek oinak jarri dizkiegu bertsolariei, 6.D gelakoek bertsoen hasierak prestatu dituzte eta 6.E gelakoek bertsoen gaiak. Bertsolariei ongi-etorria emateko, 6.F gelakoek bertso bat egin dute eta 6.B gelakoek saioaren aurkezpen lanak egin dituzte. Bertsolariek, bikain aritu ziren guk emandako lanak burutzen.

Bukatzeko, bertsolariak beraien artean bertsotan aritu ziren libretik, gaiak momentuan inprobisatuz.

Saio honetan 5. eta 6. mailako ikasle guztiak elkartzen gara eta iaz bezala, aurten ere, primeran pasatu dugu.

Naia Martinez 6.A

EUSKARAZ, IRUNEN BARRENA

S.R.A. andreari jasoa (Irun, 1959 VIII - 5) “Etortzen giñenian baratzetik porruakin, gure amak esatentzigun broman: Ai umia, oiek apaizan porruak dittun” (El Bidasoa, 1959-IX-5)

Apaizaren porru zuriyak

Gizon isaun bat joantzen konfesatzera.

Eta galdetu ziyon apaizak:

- Deus lapurtu al duk?
- Bai, porruak!
- Ba! Hori eztuk konfesatzen!
- Ba ordian ire baratzekuak yittuen.
- O! Ayek porru zuriyak´ttuk. Eta ayek paatu eiñ bear´ttuk.

Iturria: Nikolas Alzola Gerdiaga
Euskaraz, Irunen barrena.

Irundik Europarako atea

Gazteen Mugikortasunerako Nazioarteko Zerbitzua eratu du Irungo Udalak

Gazteen egitasmoen artean aurkitu ohi da atzerrian egonaldiak egitea, ikasle garaian eta udaran, batez ere. Aukera asko egoten dira, baina ez da erraza izaten norberarentzat egokiena den formula topatzea. Gaiaren inguruan aholkularitza emateko zerbitzua eskaintzen du Irungo Gazte Informazio Bulegoak, joan den udaraz geroztik. "Gertuko proiektu bat izateko sortu da, gazteentzat erreminta baliagarria izateko", adierazi du Josune Gomez Irungo Udaleko Gazteria arloko ordezkariak.

"Gazteen gogoak eta interesak kontuan hartuta, gehien komeni zaizkien aukerak aholkatzen dizkiegu"

"Kasu askotan, jendeak ez du halako programetan parte hartzen, ez duelako haien berri"

Oihane Amoedo, mugikortasun zerbitzuko arduraduna

CBA kultur gunean topatu daiteke Irungo Udaleko Gazteen Mugikortasunerako Nazioarteko Zerbitzua. Liburutegiko harreraren ondoan dago, eta Oihane Amoedok du bertan gazteei harrera eskaintzeko ardura. Hilabete bakar batzuk daramatza zerbitzuak martxan, baina balorazio baikorra egin dute orain arteko lanaren inguruan. Udaren atariko sasoian, bereziki, gazte asko hurbiltzen ari dira, atzerrian egonaldiak egiteko informazio eske. "Helburuak ezberdinak izan daitezke: bidaiatzea, lana bilatzea, praktikak egitea, boluntariotza proiektuetan parte hartzea etab. Haien gogoak eta interesak kontuan hartuta, gehien komeni zaizkien aukerak aholkatzen dizkiegu", azaldu du Amoedok.

Zerbitzuko arduradunak azpimarratu du edozein gaztek aurki dezakeela bere interesekoa den aukeraren bat. Baldintzarik ez dagoela ziurtatu du Oihane Amoedok: "Berdin du zein ikasketa, esperientzia edo hizkuntza maila duen". Ahalmen ekonomikoak ere ez du zertan erabakigarria izan, diruz-lagundutako proiektuak baitaude: Europako Boluntariotza Zerbitzua, edo Erasmus +: Gazteria Ekinean, esate baterako. "Kasu askotan, jendeak ez du halako programetan parte hartzen, ez duelako haien berri", aipatu du Amoedok. Work Away formulak ere, esate baterako, arrakasta izan du azken aldian, ostatuaren truke lan egiteko aukera eskaintzen baitu. Halako baliabideen inguruan informatzea da mugikortasun zerbitzuaren eginbeharretako bat.

Elkar trukeetan parte hartu dute Irungo gazteek

Erasmus +: Gazteria Ekinean programaren baitan, Gazte Elkar Trukeak antolatu ditu mugikortasun zerbitzuak berak. 2016ko uztailean, 15 eta 17 urte arteko 13 gazte irundar Georgian izan ziren, kirolari eta genero berdintasunari buruzko topaketa batean. Suediako eta Georgiako gazteekin batera egon ziren Ureki hirian. Oso esperientzia positiboa izan zela azpimarratu du Josune Gomezek: "Egun horietan beste herrialdeetako gazteekin egotean izan dituzten bizipenez gainera, beren Youthpass ziurtagiriarekin etorri ziren. Europar Batzordeak ematen du, esperientzia horren bitartez ikasitakoa egiaztatzeko, eta Europako lurralde osoan balio du".

Abuztuan, berriz, Portugalgo, Georgiako eta Letoniako gazteak izan ziren Irunen, zortzi egunez, kulturari eta kaleko arteari buruzko beste topaketa batean. Herrialde bakoitzetik, 13 eta 17 urte arteko zazpi lagun etorri ziren, adin nagusiko laguntzaile banarekin. Irungo zenbait gazterekin batera, artearekin, hiriko kulturarekin, sorkuntzarekin eta teknologiekin lotutako zenbait jarduera burutu zituzten, hezkuntza ez formalaren metodologia erabiliz.

Bruselara bidaiatzeko aukera ere izan du Irungo gazteen multzo batek, martxoan. Europako Batasuneko erakundeak ezagutu zituzten, Belgikan zehar turismoa egiteaz gainera. "Lehenago, eskoletan dinamika bat egin genuen, Europako parlamentuaren simulazio moduko bat", jakinarazi du Oihane Amoedok. Bide batez, Mugikortasun Zerbitzua ezagutzera emateko modua ere izan zen. Difusioa lantzen ari direla aitortu du Amoedok, eta horretarako, hitzaldietan eta azoketan parte hartu izan dutela. CBAn jaso daiteke nazioarteko mugikortasunari buruzko informazioa, astelehenetik ostegunera, 17:00etatik 19:30etara. Astearteetan 10:00etatik 14:00etara. Badaude harremanetan jartzeko bestelako aukerak ere: ieurope@irun.org helbide elektronikoa, 943 505 446 telefono zenbakia edo http://www.irun.org/igazte web gunea.

Nazioarteko mugikortasun aukerei buruzko azoka

Irungo mugikortasun zerbitzuak azoka bat antolatu du, Donostiako Europe Direct zentroarekin elkarlanean. Gazteentzako Nazioarteko Mugikortasun-Aukeren Azoka maiatzaren 9an izango da, Europako Egunaren harira. Irungo Martindozenea Gaztelekuan egingo dute, 10:00etatik 14:00etara. Europan zehar bidaiatzeko aukerak eta mugikortasun zerbitzua bera aurkeztea izango da azokaren helburua.

Ohiko stand-ak kokatuko dituzte, baina azoka interaktiboa izango dela azpimarratu du, bereziki, Oihane Amoedok: "Europako Boluntariotza zerbitzua egiten ari diren gazte batzuk egongo dira, eta haien esperientziak kontatuko dituzte. Lehiaketak eta jolasak egongo dira, sariekin. Photocall bat ere jarriko dute gaztelekuan. "Youthpass eta Europass Europa mailako gaitasun aitorpenei buruz hitz egingo dugu", nabarmendu du Amoedok.

Hiriko hezkuntza zentroekin harremanetan jarri dira antolatzaileak, ahalik eta jende gehien hurbildu dadin. 13 urtetik gorako edonork parte hartu dezake, beraz, jende asko espero dute. Hori dela eta, 60 minutuko lau txanda antolatzea erabaki dute. Bakoitzean 200 gaztek parte hartuko dute, gehienez.



LEHEN SOROSPEN IKASTAROA IRUNEN

Datak: 2017ko maiatzaren 8tik 19ra.

Ordutegia: 18:00etatik 21:30etara (astelehenetik ostiralera).

Iraupena: 40 ordu
Lekua: Irungo Gurutze Gorria (Euskal Herria hiribidea, 14).

Matrikularen kostua: 110 euro.

Adina: 16 urtetik aurrera.

Antolatzailea: Gurutze Gorria.

Matrikulatzeko:
irun.sociales@cruzroja.es
izen-abizenak eta harremanetarako telefonoak adieraziz.

IKASTAROAK: "HODEIA" ETA "ZURE SMARTPHONE EDO TABLET-A"

1. "Hodeiko tresna ofimatikoak"
Ikastaro honetan doako lineetan gauzatzen diren aplikazio informatikoak erabiltzen ikasiko duzu, baita Google Suite-ren utilitate praktikoak ere.

Iraupena: 20 ordu.

Hasiera: 2017ko maiatzaren 8an.

2. "Erabili ezazu erraz zure Smartphone-a edo Tablet-a "
Ikastaro honetan, ANDROID sistema operatiboaren funtzionalitate praktikoak ikasiko dituzu; zein aplikazio diren ezinbestekoak eta nola egokitu zure gailu mugikorrak zure beharretara.

Iraupena: 20 ordu.

Hasiera: 2017ko maiatzaren 29a.

Izena ematea eta informazio gehiago:
http://www.elespazio.com.

irun gazte informazioa

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

GAZTEARTEAN. MUSIKIRUN VII MAKETA LEHIAKETA 2017

Taldeek edo bakarlariek parte hartu ahal izango dute, jatorri geografikoa eta musika estiloa edozein direlarik ere.

Zer aurkeztu?
1. MAKETA, (gutxienez BI abesti, gehienez BOST).
2. Izen emateko orria.
3. Taldearen edo bakarlariaren egungo argazkia gehitu, formatu digitalean.

Nora bidali?
1. e-maila: igazte@irun.org.
2. IGazte bertan (CBA Kultur Gunea, -1 solairua, San Juan plaza - 8. gela - IRUN). (Ordutegia: astelehenetik ostiralera: 11:00-13:30 eta astelehena eta asteazkena: 17:00-19:30).

3. Maketarik ez badaukazu jarri harremanetan antolatzailearekin:
corvuscorax.71@gmail.com

LAN-POLTSAK: GIZARTE LANGILEAK ETA ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIAK

irun
www.irun.org

GIZARTE LANGILEEN LAN-POLTSA. Irungo Udala

Titulazioa: Gizarte Lanean Diplomatua edo Graduatua.

Epea: 2017ko maiatzaren 10ean.

ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIEN LAN-POSTSA (profil juridikoa).

Titulazioa: Zuzenbidean Diplomatua edo Graduatua.

Epea: 2017ko maiatzaren 10ean.

Maiatzak 5

Zer? XXXV. BERTSO GAUA

Bertsolariak:
- Andoni Zelaia
- Juan Mari Lopez
- Manolo Arozena
- Iñaki Zelaia

Bertso jarriak: Urko Casado

Gai-jartzaile: Egoitz Zelaia

Ordua? 19:30etan.

Non? Kabigorri Bidasoaldeko Ateneoan.
Sarjia, 1, atzekaldea

Prezioa: Doako sarrera.

Telefonoa: 943635333/ 630313642.

bidaShop

Maiatzak 5

Zer? Topaketak hiritarrekin "argiztapenaren bilakaera argazkilaritzan".

Ekimenaren helburua da irundarrak elkartearekin kolaboratzen duten establezimenduetara eramatea, lan orduetatik kanpo, irundar baten hitzaldiarekin gozatu ahal izan dezaten.

ADStudioko Mariano Aguadok eta Estudio Gover-eko Fernando Vergarak eskainiko dute hitzladia, oraingoan.

Non? Ikuski Optikan (Luis Mariano 11)

Prezioa: Doako sarrera. Izena eman behar da dendan bertan, aldez aurretik.

Informazio gehiago: http://www.bidashop.org

Maiatzak 31 arte

Zer? "Txingudi Vida" GKEk antolatutako azoka solidarioa.

Non? Geltoki Kalea 3.

Ordua? 10:00etatik-13:00etara eta 16:00etatik-20:00etara.

Prezioa: Doan.

Antolatzailea:
http://www.txingudivida.org
Txingudi Vida.

Maiatzak 7

Zer? Maiatzaren lehenengo igandean (hilak 7) 10etatik 16ra bitarte egingo da Bigarren eskuko, artisautzako, eskulanetako eta abarretako lehen Azoka.

Saltokiak Lezo kaleko arkupean kokatuko dira eta erdialdean, barra bat jarriko da.

Bertan PINTXOAK eta SAGARDOA salduko dira eta Auzoko Jaietako Batzordearen ardurapean egingo da. Dena musikaz girotuko da.

Barran eta izen emateetan biltzen den dirua SAN MIGUEL AUZOKO JAIETARAKO erabiliko da.

Ordua? 10:00etatik-16:00etara.

Non? Lezo Kalean.

Prezioa? Doan.

Oharra: Irungo San Miguel kaleko Lezo kalean, eta bertan ibilgailuen sarrerak moztuta egongo dira.

Martxoak 9

Zer? Dantza: "El lagarto baila". Bi pertsonaia kuttunak,

artea, eta hark ematen dituen jolasteko aukerak gustoko dituztenak, erritmo, kolore, forma eta mugimenduz beteriko bidaia batera eramango gaituzte.

Begiratu, entzun, ikutu, sentitu, jokatu, sortu eta... dantzatzeko garaia da.

Gomendatutako adina: 3 - 8 urte

Ordua? 17:00.

Non? Amaia Kzn.

Salmeta:
- Internet bidez.
- Irungo Turismo bulegoan, Luis Mariano plazan
- Amaia KZren leihatilan: ikuskizunaren egun berean.

Prezioa: 4,20 euro.

Félix Manso

IBARLA

Afari berezia

Maiatzak 4

21:00

5 plater dastatuko ditugu

5 ardo paregabez

lagunduta

50 €

Jankide kopuru mugatua

Erreserbak 943 841964

Meaka, 9 IRUN